



## **HERRI ADMINISTRAZIOETAN HIZKUNTZA NORMALIZATZEKO ZUZENDARITZAREN TXOSTENA**

**Espedientea: DNCG\_LEY\_135904/17\_02**

**Euskal Autonomia Erkidegoko Administraziooko Kidegoak eta Eskalak arautzea helburu duen Lege Aurreproiektuaren** berri jaso dugu bide telematikotik Herri Administrazioetan Hizkuntza Normalizatzeko Zuzendaritzan uztailaren 22an Tramitagune tresna informatikoaren bitartez, Gobernantza Publikoa eta Autogobernua Saileko Funtzio Publikoaren Zuzendaritzak bidalita, derrigorrezko txostena emateko eskatuz.

Eskaera horri erantzunez, xedapen orokorrak egiteko prozeduran euskararen erabileraren normalizazioaren ikuspegia txertatzeko araubidea ezartzen duen azaroaren 6ko 233/2012 Dekretua, eta Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen apirilaren 11ko 82/2017 Dekretuaren 14.1) artikulua oinarri hartuta, txosten hau ematen dut:

a) Hizkuntza arloko araudiaren betetze maila.

Abuztuaren 31ko 128/2007 Dekretuak xedapen orokorrak egiteko prozeduran euskararen erabileraren normalizazioaren ikuspegia txertatzeko araubidea ezarri zuen: *“euskararen erabileraren normalizazioaren arloan eskumena duenak araua prestatzeko hasierako fasean esku hartu ahal izan dezan”*. Azaroaren 6ko 233/2012 Dekretuak, aurrekoa indargabetuz, bere 4. artikuluan eskaera egiteko epea ezartzen du:

*“Proiektua izapidetzen ari den sailak egingo du aholkularitza txostena emateko eskaria, hori taxutzeko espedientea behin behinekoz onartzeko agindua publiko egin ondoren, eta instrukzioa egin duen saileko zerbitzu juridikoak dagokion txosten juridikoa eman ostean”*

Izapidetutako dokumentuetan jasotzen denez, aztertzea eskatzen zaigun xedapenaren alde aurreko onarpena uztailaren 17koa da. Bete da beraz aipatu Dekretuak xede honekin arautua.

Bestalde, aipatzekoa da hasieratik zintzilikatu direla Lege Aurreproiektuaren euskarazko zein gaztelaniazko zatiak; beraz, bete dela abenduaren 22ko 8/2003 Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren Legearen 7. artikulua. Artikulu hori jarraiki, alde aurreko onarpenak legearen testu osoari buruzkoa izan behar du; euskarazko zein gaztelaniazko zatiak barne.

Xedapen hori betearaztera begirakoa da Eusko Jaurlaritzak 2013ko maiatzaren 14an hartutako Erabakia, lege, legegintzako dekretu, dekretu edo agindu izango diren xedapen orokorrak bi hizkuntzetan idazteko neurriak onartu zituena:

*“betiere dagozkion negoziazio, audientzia eta kontsultak egiteko izapideak egin baino lehenago; izapide horiek guztiak ele bitan dagoen testuarekin egin beharko dira. Ondorengo instrukzio faseetan ere, derrigorrezko txostenak eta irizpenak eskatzeko orduan, bi hizkuntza ofizialetan idatzitako testua bidaliko da.”*

Ildo beretik, izapidetzearen baitan jasotako txostenek testuaren zati biak hartu beharko dituzte kontuan eta, urratsez urrats, egokitzapenak bietan egin beharko dira. Tramitazioaren baitan egiten diren moldaketak testuaren zati bakarrean burutzea (usadioak ikusita, gaztelaniazkoan oro har) eta amaieran horren itzulpena egitea lege urraketa litzateke; horrelakoetan, prozeduran erabilitako hasierako testuaren erdia alboratuz (euskarazko zatia, adibidez), izapidetzearen ibilbidea jarraitu ez duen testu berri bat onartzen delako.

b) Euskararen erabileraren normalizazioaren gaineko eragina.

Xedapenaren edukia arakatu ondoren adierazten dut Lege Aurreproiektu honetan jasotakoak ez duela bestelako eraginik izango euskararen erabileran.

Adeitasunez,

Joseba Lozano Santos  
Herri Administrazioetan Hizkuntza Normalizatzeko zuzendaria